

bidegileak



Peli Markiegi (1905-1946)

Egilea:

LUKAX DORRONSORO

Lore ederretan bosgarrena

Deban, Arriola eta Egia auzoen muino arteko latsak (urlasterrak), lauarekin topo egitean, Osio erreka sortzen duen unean, S. Roke basilizaren gerizan, baso artetik zelatan ageri zen «Latsurregi» (latsurtegi?), Markiegitarren etxea; laiotzean, baina, ipar-mendebale-tatik babes, ateaz hegoaldera, hiribildutik poxi bat albora, baina ez urrutiegi, Maspe errebelean. Hementxe, 1905eko irailaren 23an, isuri zituen lehen malkoak eta amari eskerroneko lehen irria eskaini Markiegi'tar (Latsurregi'tar) Peli-lik, sei senideetan bosgarrenak:



Peli Markiegi (1905-1946)

Sei lore eder nituan
Jainkoak emanik;
Sei lore eder, nereak,
Ez beste inorenak.
[...]

Gilermo Markiegi Sustaeta, debarra zuen aita; eta ama, Maria Jesus Olazabal Egaña, Zestoatik aitaren xerka etorria edo aitak maite imanez erakarria. Lanbidez larruginak zituen guraso. Larru-lantegi (kurtiderixa)




Latsurregi: Markiegitarren jaiotetxea

baten jabe. Etxetik beheratxoago zeukaten lantegia, errekaren alboan, honelakoak ohi diren bezala, ur asko behar izaten baitute. Etsuasun handirik gabe lortzen zuten eguneroko ogia, nahiz eta lan nekosoaren ordainez. Ohituretan kristau zintzo, euskaltzale eta Sabino Aranaren jarraitzaile irmo, herriko beste zenbait sendi ezagun bezalaxe. Harrigarria da garraio bideak hain urri ziren garai haietan ideien aldarria, Euskal Herri osoan zehar, zeinen bizkor hedatzen zen ikustea.



Gurasoak lehen bi lore Joseba eta Polentzirekin



Peliren bataio agiria

Herri eskolan, ez alperrik

Kalean jolaskide eroso ohi ziren haurrak bi taldetan bereizten zituzten, garai haietan eta geroagokoetan ere, neskak maistrarekin gela batean eta mutilak maisuarekin bestean, ar-emeen elkarrekiko giro goxoa ikasketaren kaltegarri zitekeelakoan edo. Herriko zaharrenek diotenez, maisu ona omen zuten Deban Peli eskolatu zuten garaian, Lorenzo Aparicio hain zuzen, euskaraz egiteagatik kaskarrekoen bat edo beste jaso behar izan bazuten ere. Ikasleek ere gaurregunok ez

halako jakin-mina zuten, guraso eta zaharra-goengandiko ahoz-ahozkoaz aparte, ez baitzuten eskola beste ikasbiderik, ez arreta piztu ziezaiekeen irrati, telebista edo beste ihesbiderik ere. Taxuz jaso zituen Pelik matematika, lengoaia-literatura (espainola, noski), historia (Espainia Inperialarena, nongoa ba?) eta marrazkigintza.

Hamabi urte bete zituenerako begiz joa zeukan urtean behin apaizgai-eskale etorri ohi zitzaien jesuitak, eta, anaia Joseba hamar urtez zaharra-goaren bidea hartu zuen erabakior.



Markiegi sendia, bere osoan

Comillasen apaiz ikasten, Kantauri Itsasoaren kresal giroan

Espainiako Kantabria probintzian dago Comillas, Santander hiriburutik hurbil. Hala ere, ez zitzaion batere arrotz gertatu debar gazteari eliz unibertsitateak kokalekutzat hautatu zuen itsas gain-gaineko muino alde ederra. Bazuen Debako zenbait alderdiren antzik eta, Kantauri Itsasoaren ur-zelai zabalak, erremediorik gabe, bata besteari lotuak zeuzkan. Bestalde, Kastilerrrian zegoen arren, jesuiten

ardurapean zegoenez eta jesuiten etxe nagusia Loiolan, apaizgaitegiko ikasleen herena edo euskalduna zen. Gainera anaia zaharra-goa ere hantxe ari zitzaion ordurako teologia ikasten. Etxean bezalatsu, beraz, aldeak alde.

Euskaldun asko zen, bai, baina euskal giroa... Euskaltzaletasuna ezkutuan ondo gorde beharreko altxorra zen han eta, euskara ahopeka erabiltzeko kuttunkia. Zigorra hurbil zebilkion arloa zen hau, Nikolas Ormaetxea *Orixe* ospetsua lekuko; itxura denez, euskaltzale izateagatik bota baitzuten jesuitetatik.



Comillasen ikasle berri

Orixe, Comillasen, lehen mailetakoa ikasleena maisutxo izan zen. Ez da dudarik euskal literaturarako lehen urratsetan lagun izan zuela Pelik Orixeren errainua. Euskaldunetz osaturiko teologia ikasle talde batek *Aldizka*



Orixe: maisu eta adiskide

hilabetekaria ateratzen zuen ezkutuka, aita Arin erretorearen isilpeko oniritziz; *Aldizka*-koekin harremanetan jartzeko aholkua eman baitzion Orixeri. Bai honek haien artean esku hartu ere. Aita Bianchik, 1916an, erretoretza hartzean, asko okertu zen euskaltzaleen lan-giroa; A. Biantxik, donostiarra zen arren, ez baitzituen euskaltzaleak batere begiko, begitan baizik, *Aldizka* taldeak ezkutaleku berri bila hasi behar izan zuen. Orixe, berriz, bota egin zuten Jesuitetatik euskarari zion jaiera beste ziorik gabe. Ikasle euskaldunek, ordea, ez zuten amore eman eta, Pelik, teologjara heldu zenean, *Atzerri* aldizkariko idazle eta partaide ageri zaigu, *Zera* izengoitipean. Dena dela, euskal literaturaren izendegian apaiz comillastar ospetsu askoren sinadurak ikus ditzakegu (Aitzolengandik P. Markiegirenganaino), maila handiko jesuita eta jesuita ohiekin batera (Olabiderengandik Lauaxetarenganaino). Azpilan bikaina egin bide zuen jendeak.



Joseba, ikaskideekin mendian

Ikasle on eta olerkari

Buruz argi eta langile zintzotzat eman beharra dugu, garaikoen esanari muzin ez egitekotan, filosofia-teologietan doktore eta musikari iaio izatera iritsi baitzen diotenez. Gainera, ikasle aroan, berezko zaion olerkari senaz jabetzean, trebatze aldera, jolas-ariketan burutu zituen idazlan lirikoek nabarmen



Apaiz gazte, zaharragoen lagunartean

erakusten digute literatur arlo honetan ere eskuratzen zihoan maila.

Hamabost olerki jaso dizkiogu garai hartan egindakotzat, bat ez besteak datarik gabe heldu bazaizkigu ere:

Jaunaren ots biguna: apaiz-bidea aukeratzen utzi ziolako, eskerronez, amarentzat egindako bertso sorta bipila.

Gaberdia da: Isil eta bare ari zaigu naturaren arnas hartzeaz, metaforaz metafora, «gaberdiko ixilean urrago» zaion Jaunari otoizka burutzeko.

Malkoa: Laburra eta bitxia. Samin aldi garratzean garrasi bat dario, leher zorian jarri zaion eresizko itsasoari bide emanaz.

Gaztelako erromantze zaharren eremu aberatsetik sen onez eskuratutako harri-bitxiaren itzulpena dugu *Fontefrida*. Auzoko ona, gutxietsi edo arbuiatu beharrean, goretsi, onartu eta etxerakotzearen zale dela adierazten digu.

Goiburutar Jokini: Lau kopia bikainetan ematen dizkio apaiz berriari zorionak, lilura, gorrespen eta aholku. «Oi! Xabierren oiñorde leial/ gaurtik izango al zera.» Gogokoago du Naparra Loiolakoa baino.

Hauetan eta garai honetako beste hamarretan ere nabari zaio sentimendu eta barne gogapenen kanporatzeko joera; besterik ezinean, papereraino bederen jaulki beharra.



Peli. Apaiz ordenak hartzen

Eta apaiz egin zen

Jardunaren jardunean urteek aurrera egin zuten. Filosofia eta Teologia ikasi eta bietan doktoretza lortu ostean, Jose Maria Egino Treku Santandergo apezpiku euskaldun azkoitiarrak egin zuen apaiz, 1930eko ekainaren 5ean. Uztailaren 31n, S. Inazio egunez, eman zuen Deban meza berria. Asaldatua zebilen jendea, zirraraz herri guztia, aparteko jai-giroan. Dena zen alai, dena eder; ezpain guztietan poz-irri, soin guztietan jaiko jantzi.

Ez dakit gaur egun gertatzen ote den ezer zorion-une labur bezain bizi haren antzeko egoera asaldagarria ernarazi dezakeenik.

Horra gure gizona jainko txiki bilakatua. Hala baitzen apaiza, salbuespenak salbuespen, zazpi sakramentuetan barna, igandeetako meza-bezperak eta katekesia, jaiegun bereziak, garizuma, haragi-uzte eta barau, gogo-jardun eta prediku, bataiotik hiletetaraino erlijioan murgil bizi zen gizarte harentzat.

Eskoriatza lehen lan-esparru

Gipuzkoa Gasteiz Elizbarrutikoa izanik, hemengo apaiz berriak Araban eman behar izaten zituen, gehienetan, bere lehen urratsak, herri txiki ugari baita lurralde hartan sakanatua bere eliz bikain eta guzti; apaizak, berriz, urritxo sortzen nonbait. Peli hara bidean, ia muga, utzi zuten. Filosofian eta teologian doktore eta, gainera, musikari eta organo-jole bikaina, ez zekarren Pelik batere muzin egiteko «curriculum». Hain zuzen Eskoriatzatik organo-jole eske ari zitzaizkion gotzainari, eta... hango Babes Etxeko kapilau egin zuen, parroko organistatza eta eliz musikari zegokion guztia ere bere gain zituela noski. Urtebetez egon zen han.

Eibarren, handian handi

Ez zen alperrik Nemesio Otaño, jesuita azkoitiar, musika konposatzaile, Comillas Abesbatzaren zuzendari eta organo-jole handiaren gidaritzapean trebatua. 1931ko abuztuaren 4an Eibarra joateko agindua jaso zuen, S. Andres Parrokiko Kapila Maisu eta D. Ignazio Arrillaga klinikarako kapilau izendatua.

Haurrei dotrina ematen ere aritzen zen. Mutilei astean hirutan ematen zien eta beste hirutan neskei. «Zintzo aparta zan —esaten digu Tere Gantxegi bere ikasle ohiak—. Dotrina laga gu umeon esku, konfiantzia baeukalako, ta, han joaten zan ha, antxintxike bati, klinikatik hots egiten bajotzen.»



Dotrina ikasleen zerrenda: azken bigarrena M. Tere Gantxegi

Gazteen ardura ere bazuen eta ez hobbytzat, haiekin eroso lan egin ahal izateko arto eske idatzi zuen gutunean ageri denez: «..., sarri egon gera, biotza minduta, emengo gaztediari begira. Egan egin nai luken eta ezin duen arranoa iruditzen zitzaigun. ... Ego makal oiei nola eman indar berri, ega nasaian gora igotzeko? Ez degu ortarako bide bat baizik ikusten: burua jantzi, biotza berotu».

Ospe handiko apaiz multzoa ari zen garai hartan Eibarren Markiegi'tar Pelirekin batera, D. Joan Ibargutxi, esperientzia handikoaren gidaritzape onartuan: D. Gabriel Manterola, D. Poli Larrañaga... «Oso errekerdo haundixa itxi eban D. Pelik, —diosku Terek—. Hak emondako formazixua izan da gure bizikeraren oinarria. Hurkoaganako maitasuna D. Peli eta haren lankideengandik ikasia dogu».

Benetako olerkari

Olerkari egina, osoa, ageri zaigu dagoeneko Eibarko organo-jole bizkorra; adierazpide jator bezain duina bilakatu zaio hitz neurtua; nola arnasa bizitzeko hala zaio bertsoa bere mezuak aldarrikatzeko: ez nahikoa, bai beharrezkoa. Sentibera, naturaren eraginpean eroso, ebanjelioaren giro erlijiosoz asea, maitasun jario, injustizia mingarri eta ulergaitz zaiola, zapalduen oldar-lagun, negar-kide eta abarro. Borborka adierazten du gainezka sentitua, lirismo aldiz goxo sarri suminean. Metafora, konparazio eta parabolak maiz erabiltzen ditu argigarri bikaintzat, eta, paradoxei ere ematen



Eusebio Erkiaga Endaitz, gaztetan

die behin baino gehiagotan leku ironiaren harira.


Hiru sailetan bana ditzakegu Eibarren zela, gerra sutu zen arte, idatzi zituen olerkiak:

a) Barne olerkiak:


Bere gogo-bizitza tinkoaren adierazpen bikaina, biografia zehatza, osatzen dute. Hamalau

olerki kontatu dizkiogu sail honetan, zein baino zein benetakoagoak. Gogo-materia bikotearen borroka aitortzen du biziki *Pake Yauregia*-n, konparazio adierazkorrak erabiliz; azkenean «... zure yabe dut / orratik gogo zintzoa». Aitorpen bera dago *Argi bila natorkizu* eta *Negarez*z otoitz apal samurretan, eta, hutsera eraisten du bere burua *Yauna au lana*-n, har bilakarazteraino, «... baiña Yainkoak / beretu duan artxoak». *Goiko Yaunaren zabala* olerki alaian, Itzalik gabeko uste ona eta abaroa kantatzen

ditu bozkarioz: «Zuk berotzen, zuk mamitzen, / zuk baretzen biotza; / zuk isiltzen aserre ta / gorrotoen aiotza; / zuk gozatzen oiñaze ta / biotz-minen mingotsa; / zuk urtutzen ta epeltzen / esker-txarren izotza». *Otoitza*, berriz, Jainko zale sutsuaren maite-jario mistikoa duzu; 10-5eko bertsoan erraz doa bere sentipenak jaulkitzen; aire berekoak dira *Entzun det* eta *Eresi nigun ori* epigrafe erako olerkitxoak ere. Luzeago da *Urruti samar*; arnas batean irakurtzekoa, ordea; edukiz bete, adierazpidez aberats eta erritmoz arin, zortziko handian doan arren. Multzo horretan sartu ditugu Bibliatik hitz neurtu errimatuetan maisuki itzuli zizkigun eresi poetikoak ere: 4. salmoa, 104. salmoa eta Dabidek bere aita Saul erregea erail zutenean atera zuen *Gezi-uztai* deritzan eresia. Orixeren meza-liburuko ereserkiek badute horien antzik. Nor noren eskolako?



Olerki lagin polita



«Jesus Maitea zan»: Eliz-kanta ezaguna

b) Inguruarekikoak:

Sustraiak bere lurrari irmo atxikiak zituen gizona zen Peli, inguruarekiko harreman estu etenik gabean bizi zena, adimen zorrotzaren lagun, bihotz bera bezain eraginkorra zuena; egunerokoari beti adi, geroari bide ahalik eta erosoena irekitzeko jardunean. Halaxe agertuko zaigu sail honetan aurkitu ditugun hemezortzi olerkietan zehar.

Gutun olerkiak ditugu: *Oa ogerleko*, Lizardi zenaren oroitarrirako eskuikusiararen eskaini-gutuntzat, Lizardi kutsuz asean nahita, jolasti

egindako olerki laburra; *Negu gogorra*, J. K. Ibar gutxi apaizaren, zilar-ezteietan omenduaren, eitea, goretsiz, parabola esanguratsuz marrazten duena: «Euskal basoko zugatz tantaia, / agur!, itzalez, gaur zuri»; *Ezagun da bai*, olerki luzeska, sendi arteko berriketa ironiatsua dariola, kuttunkeriak tarteko, «Zorion-lorak eskeiñi zintzo / bere egunean amari»; *Agur*, (Endaitz) Eusebio Erkiaga 22 urteko olerkari miretsi eta ezagutu berriari, lirikotasun aberatsez idatzia; eta, itxaropen giroko bertso zerrenda dugu *Gero arte*, saminean atsedena ere badaraman agur-olerki etxetiarra.



Eibarren, S. Andres Parrokiko Abesbatzarekin

Egunerokoak tarteka eman ohi dituen gertakari kitzikagarriek Peliren olerki baratzan ernarazitako landareak dituzu ondorengoak. Hala, *Ene maitetxo* ipuinean erdi ostenduak sumarazten dizkigu abertzale suminduaren kezka ilunak, eta, argitzen ere ipuinez doa, astiro-astiro. Harro goresten digu 1934ko irailaren 4an euskal parlamentariak, Euskal Herriko udal ordezkariekin batera, polizia indarren hesi erasokorra gaindituz, erakutsi zuten ausardia *Zumarragako batzarra* olerki epikoan. Une hunkigarriren bat gogoan, goibel antzean, eztiki, isuriak bide ditu *Aliko mutiko leloa* abesti samurra, paradoxa polita tarteko: «Xut, me, ari bat zutik bailetor. / ...»; *Abesti galde*, *Mendian gora* eta *Mari*, honelako printza zirraragarriak darizkie-la: «Malko intzetan sor zitzaizunaz / badut abestirik naiko». «... Oiñean / malko gorri bat; begian, gaiñez / egin ez egin, dardarka / bestea, begiak apal / oarkabeen zabalik; / barne-sakonen ikuseziña / aien beltzean da ageri.»

Bizi eremuak, etxe, mendi eta inguru bazterrek ere badute eraginik Latsurregi'tar Peliren ele-etorri ederrean. Txoko-minaren hats epelak hunkitua kantatzen digu base-rriko arrats-giroa *Arratsaldean*-en, eta, Latsurregira bideko goiz-giro laiotza *Osion gora*-n.

Bere buruari, olerki senez, bertsotan iaio ari zaio, *Gaixorik*..., asperra eragotzi beharrez. Mamiz aberats, azalez eder.

Bertso-bertsoak ere baditu, ordea, bertso-paperen zale zela erakutsiz; Paulino Uzku-dun goretsiz hiru bertso idatzi zituen zortzi-ko txikian, «Gora gure Paulino / ukabilkari-ya». Ez zuen asko uste gizajoak, denbora luzea baino lehen, faxisten zerbitzari anker bilakatuko zenik: «Paulino Uzku-dun izan zen Donostiako fusilatze-piketeen arduraduna» (*Gudari*, 1936ko azaroa). Baditu beste bi, biak bina bertsoak, hamarreko handian eta hasiera berekoak: «Bertso berri bat jarri nai nuke / tristien kontsolagarri»; batari ondo datorkio hasiera, klinikako bere lankide lantokitik erazuei egin baitzizkien: «Zuek jun eta geratu giñan / guztiok estu ta larri»; ez besteari, ordea, zorion-gutun bat da eta. Badu laugarren bat ere, «San Juan Eguna» izenez egina: bertso paper zaharren estilo klasikoan, txukun jarritako bost bertso dira, San Juan Bataiatzailearen heriotza kontatuz Osatuak.

c) Eliz kantuak:

Musikaria baitzen, maite zuen kantua; elizgizona izanik eliz kantuak idatzi zituen. Musika ere bai? Agian. Guk orain arte miatu ditugun zokoetan, ordea, ez da halakorik agertu. Harritzekoa, baina, Eibarko S.Andres parrokiko gordekinak erre egin zituen gerrak eta... Arrateko Amari egin zizkion bi, bata otoitz-giro samurrekoa eta eresi arranditsua bestea; Jesusen Bihotzari bat, zortziko txikian eroso; eta Eukaristiari hiru biziro barnekoiak, gaur oraindik ere entzuten dira gure elizetan hauetako bi.

Antzerki idazle

Pedagogo argia zen, dudarik gabe, debar bixkor hau. Bazekien haurrak edozer ikasten duela, erraz, jolas-bide zaionean. Dotrina buruz ikastearen astuna arintzea otu zitzaion, dotrinaren edukia antzerkira erakarriz; jolas atsegina baitzitzaien haurrei, baita helduei ere, antzerkia egin nahiz ikustea. «Antzerkiak egiten genituen jai arratsaldeetan sakristia gaineko aretoan» —diosku Tere Ganxegik.

Tene Mujika herrikidearen *Gabon* haur antzerkiaren lehen esku-idatzia, gero birmolda-



turik saritua izan ondoren argitaratua, bere paperen artean agertzea bi antzerki idazleen arteko harreman estuaren agiri da. Pelik ere idatzi baitzuen antzerkirik, saritu eta argitaraturik ere:

a) *Seme hondatzailea*

Irugarren Antzerki-Sariketan, 1935eko udazkenean, saritua eta 1936an *Antzerti*-n argita-



Tene: Idazle, lagun eta herrikide



Polentziren emazte Maritxu eta hiru alabak

ratua, «..., euskeraz bertso ederrez jantzia, Markiegi'tar Peli apaiz jaun eta idazle iaioak antzerki bikaina eskeñi digu», onets hitzak lagun. Ebanjelioetako parabola batean dago oinarritua (Lk. 15,11-32). Lau ekitaldi ditu, bertsoan dotore konposatuak.

Lehenengo ekitaldian, etxeko biziera arrunta, seme gazteenaren burujabetasun grina eta senditik urruntze garratza kontatzen ditu, 10-8ko bertso neurrian errima asonante bakarra erabiliz. Agur, ordea, 7-6ko neurrian, hiru puntuko hiru koplak eder hunkigarritz egiten dio aita atsekabetuak.

Bigarrenean, taberna baten atarian ageri zaigu seme gaztea, jolas-lagunekin; jokoan galtzaile, mozkor eta lapurtua, lur-joa, herio-eske. Hori ere 10-8kotan, asonantean.

Hirugarrenean, zarpil, narrats, oinuts, zikin, txima-jario, ageri zaigu mendi bazterrean. Zortziko txiki bikainetan kantatzen digu gazte erratuak bere damua.

Laugarrenean, etxe atarian aita zahar erkindua itxaropena galdu nahi ezean, aita-semeen elkartzeko hunkigarria, eta, bi anaien arteko onezkoak... Dena 7-6kotan.



Gerra denboren, arreba Kontxik jaso zituen gurasoak

b) Lore ederrenak

Argitaratu gabea..., Beno, ez da dudarik, Eibarren, sakristia gaineko eszena-tokian argia ikusi zuela, hartarako egina zenez gero. Dena dela idaztiño zahartxo batean eskuizkribuz etorri zaigu guri, eta, orriren bat ere falta lezake. Dotrina giroko antzerki labur polita da; bertsoz egina hau ere, olerkitxo eta guzti.

c) Txistutxo

Idaztiño zahartxoan etorri zaigu hau ere. Bakarrizketa bitxia, irudimen handiz egina. Oso

laburra da: hiru zortziko txiki eta hitz lauz emandako antzez gidoi zehatza; baina, bentean politta.

d) Piarres'en Prakak

Komedia arina eta egoki josia bere bi ekitaldi laburretan. Azkainen idatzi zuen 1938ko urtarrilean, Argentinara alde egin baino hilabete batzuk lehenago. Antzerki idazle bikain eta oparo bat dakarkigu gogora izenburuak; azkaindarra baitzen Piarres Lartzabal handia. Hogeitahiru Urteko ikaslea zen orduan Lartzabal. Ezagutu ote zuten elkar?

Francok gerra sutu zuen

II. Errepublikaren aurka, legezko boterearen kontra, altxarazi zituen Francok bere militar matxinoak, 1936ko uztailaren 18an, Afrikatik aginduz. Hego Euskal Herria bitan banatua gertatu zen: Nafarroa eta Araba, Mola jeneral matxinoaren esanera, eta, Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, errepublikaren alde.

Irailaren 23an, hogeita hamar urte bete zituen Pelik. Egun horretantxe, nork ahantzi, sartu zen Itziar aldetik harro Molaren gudarostea Deban, kaleko jende zibilaren hitz haserrea tiroz, odol artean, isilaraziz. Latsurregi

aita zaharra beste gizonik gabe geratu zen, anaia Polentzik, herriko alkateak, alde egin behar izan baitzuen, handik aurrera euskal gudarostearen esanera borrokan jarraitzeko.

Urriaren hasierako egunetan hartu zuten Arrasate. Joseba anaia zeukan han Pelik apaiz eta, beldurra sartu zitzaion hari zer gertatuko; matxinoak sartzen ziren tokietan ez baitzen euskaltzalerik zutik geratzen. Eibarren atzera egin behar izan zuten jipoi ederra jaso ondoren, eta ez zuten, hilabeteak gero-gora arte, Elgetako mugatik aurrera egiterik izan.



Koinata Maritxu eta honen hiru alabekin.



Gurasoekin goxo


G

Anaia zaharrena, Joseba apaiza, hil zioten

Urriaren 24tik 25erako gau ilunean, In-txortako Frentea zeharkatuz, mezulari bizkorrak berri txarrak eraman zituen, Eibarko Zelaiatarrenera (han bizi baitzen Peli): Joseba Markiegi apaiza atxilotu zutela, Jose Joakin Arin bikarioarekin eta Leonardo Guridi apaiz lagunarekin batera. Handik ordu gutxira, tiroz hil zituzten Oiartzunen. Anaiaren heriotzak eta amaren neurrigabeko oinazeak leher zorian utzi zioten Peliri bihotza: «—Sei lore eder nituan / Yainkoak emanik; / sei lore eder, nereak / ez beste inorenak. / Ta atzo, gizatxar batzuk / indarrez sarturik / ostu egin

zidaten / bat loretegitik./ ... Negar, ene begiok, / negar ene biotz. / Uda ta negu gaurtik / neretzat berdin, otz... / maite zaitut, lore eder, / naiz ta zauden ilotz. /—. Nik ere ezin nun geio. / Eztatrria lakar, /: / Ez egin, ez, negar. / Lore zenduna, gaurtik, / zeruan dezu izar... /».

Joseba Markiegi ez legoke lekuz kanpo Bidegi-leen artean. Zilegi bekit, beraz, anaiarenean, hark egingakoen aipamen xume bat bederen



Lizardik Joseba adiskideari eginiko olerkia

egitea. Antzerki zalea izaki, Henri Gheone-ren *Txerrenzubi'ko gertaria* eta J. M.^a Folch y Torres-en *Poxpolin gorria* itzuli zituen literatur hizkera bikainean. *San Luisen bizitza* liburuxka ere argitaratu zuen. Baina, guztietan aipatuena Lizardik prosaz idatzitako *Itz lauz* liburuari eginiko hitzaurrea da: «Lizardi eta Markiegi elkarren kideko... Biok gramatikari ikasi, oso ta jakintsu ziran...» (A.M. Labaien). ... «Lizardi'ren aizken aldeko adiskide miñenetakoa; Markiegi'tar Yoseba Yauna». (Aitzol'dar J.) Lizardik berak *Argi egidazu* olerki labur bezain xar-manta eskaini zion: «Onginaia ren ordaingarri apurtzat, Markiegi'tar Yoseba Yaunari». Noren kide zen jakinda, ez da erraz Josebak ez zuela olerkirik idatzi sinestea; baina, eraman zutenek harenekin zer egin zuten jakitea... Besterik ezean, Josebak idatzia da Armentiako S. Prudentzioren ereserkia. Lagin bat bederen...



Ihesi

Elurrak zuri agerrarazten ditu Eibar aldeko mendiak neguan. Urte hartakoa, ordea, odol ez eta suz gorri-horitzen joan zen, eta, udaberria hastearekin batera, Eibar eta Bizkaiko ibarrak sutu eta birrintzeari ekin zion matxi-noen gudarosteak, zeru-lurretatik bortitz eta etenik gabe eraso z. Abertzale nahiz ezker izeneko en etxeak erabat huts bilakatu ziren edo eta haur eta sasoiko gizonik gabeko ikarra-tegi. Bideak betean joan zen jendea ihesi. Horiek horrela, nolakoa eta nortzuren anaia zen jakinda, alde egiteko aholkua eman zioten Peliri ere, azken onik ez zetorkiola ikusirik. «Oso pertsegidua zegoan eta ihes egin behar izan zuan —esan digu Tere Gantxegik—. Gogoan daukat zela despedidu ninduan Urkizuko Iturrixan, Joan Manuel Orbea medikuaren traje berdea jantzita zeramala.» Izan zuen ihesbideak nondik nora zebiltzan zekien bat eta, 1937ko ekainaren lehen egunetan idatziei Azkainen eman zien data.

Mari Tere Gantxegi: bigarren lerroan, zuriz jantzia

Azkainen babestua

Lapurdiko herri polit eskuzabalean, Azkainen, eman zioten ostatu. Salatarien begi gaiztoetatik aske, ihesbiderik gabe etsaiaren esku eroriak eta eror bidean larri zebiltzanak zituen gogoan mingarri. Haren buruak ez zuen atse-denik, ez haren bihotzak pozik. Egunerok, beste aldeko berri txarrak jasotzen, berri ho-been aiduru ametsetan ere. Gerra garaiko bere idatzietan aurki dezakegu haren barne egoeraren eta sentipen sakonen berri.



Pelik maite du izadia

Nekaldiko Olerkiak

Eibarren, Josebaren heriotza eta gero, idatziak ditu sei. Beste hiru, berriz, Azkainen, baina hegoalderantz begira eginak.

a) Eibarren

Seietatik bi 1936ko azaroaren hamahiruan daude idatziak; *JHS* siglak beste izenbururik gabeak. Mundu errealetik harrigarriro at ageri zaigu, egoera mistikoan xortua bezala, sinesmenezko eremu gaitz-arriskurik gabea. Egunerokora berretorria, barne kezka agertzen ditu urduri *Zu neri deika*-n, «Ezin det nik aditu/ nere egitekoa», sinesmenaren hegalpe ziurrean bukatzeko: «Gogo zintzo dabil. / Biotza inoiz baldar. / Au azpiratu dezan / eman zuk ari indar». Haserre, *Negar-ulu*-ka ari zaigu 1937ko urtarrilaren 28an: «Gogoratu utsaz zotin garratza / igotzen zait eztarrira./ / Au al da Yaunak biotz zabalez / apaindu zigun erria? / / Txorakeriak alde batera. / Artu bide latz zuzena».

b) Lapurdin

Muga zeharkatu arte ez zuen anaiari buruzkorik ezer idatzi, ez behintzat gurerraino heldu denik, eta hobe, salatari gaiztoak aitzakia bila baitzebilzkion egun haietan. Nolanahi ere, bada bat, «Zergatik Jardun Negarrez», datarik gabea, Joseba hil zutela jakin berritan idatzia dirudiena. Donibane Lohitzunen idatzia du anaia hil ziotenean bere amaren negarrari egin zion *Ama onaren abestia* olerki hunkigarria, 1937ko ekainaren 10ean. Geroago, Azkainen, irailaren 9an kantatu ahal izan zuen *Usoduna*, anaia Josebaren hileta-eresi ausarta.



Polentzi eta Maritxu eztei egunean.

Anaia Polentzi Duesoko espetxean eraila

Hauts egina, ezerezean jausia, existentziari oinaze hutsaz atxikia, sinesmena soilik zaio babes: «malko-yario, biotza autsita / emen naukazu oiñazez. / Beste anai bat kendu didazu; / otoi ixurka naiz auspez. / [.....] / Aski dut, minak pozteko, yakin / Oiñazekide



Jose Olivares Larrondo, *Tellagorri* kazetaria. *Arbola* aldizkarian (1987, 6. alean).

gerana». Jose Olivares Larrondo, *Tellagorri*, kazetari eta Eusko Abertzale Ekintzako iheslariak gogo egoera horretan ezagutu zuen:


Bi apaiz gazterekin itsasoari begira nengoela, Espainiako gerra zibilean gertatzen ari zena gaitzesten jardun nintzen haserre bizian. [...] Apaizetako bat Peli zen. [...] Hitz gutxi zuen honek. [...] Banekien nik ihes egin behar izan zuela, hilko ez bazuten; bere anaia erailaren akats berberak baitzituen: bere herria bihotz-bihotzez maitatuz zintzoa izatea. Banekien hau guztia eta gaitzespen edo kexuren bat espero nion haren mihiari. Ez nion, ordea, batere horrelakorik entzun. Isilik

zirauen, itsasoari so, irri xume tristea ezpainenetan. Hain gazte izanik ere, barkatzen ikasia zen; bizitza-aro labur hura aski izan baitzitzaion bihotza onginahiez oparo betetzeko. Agurtzerakoan hala esan nion bere lagunari:

—Peli honek neurri gabeko ontasuna du, eta, gainean daraman oinaze izugarria eta guzti, zoriontsu dela deritzot.

—Bai. Ba al dakizu zergatik? Oinazez josia dagoen arren, itxaropenez ase dagoelako.

Nabarmen asko ageri zaigu Debako alkate Polentzi bere anaiari zion jaiera, norbaitek hala eskatuta, gaztelaniaz idatzia heldu zaigun *Polentzi Markiegiren biziuneak* esku-izkribuan. Ederki asko zekiten elkarren berri.



Argentinartzat onartua

Hitler Europan zehar bere atzapar zorrotz gaiztoak luzatzen hasia zen. Peliri, anaia Polentziren emazte Maritxuri eta alabei kalterik asko egin zien jadanik Francoren gerra marrikatuak, orain beste batek harrapatu zain geratzeko. Itsas-bidea hartu zuten 1938ko udaberrian, Ameriketara erbeste-babes bila joateko. Hain zuzen, Argentinan zeukan Maritxuk sendia; jaio ere han jaio baitzen, guraso bergarar euskaldunak bazituen ere.

Leandro B. Astelarrak, Bahia Blanca-ko goztainak, Tres Arroyos-ko apaiz izendatu zuen. Denbora asko baino lehen, dohainez eta jakinduriaz oparo jantzia zegoela oharturik, Bahia Blanca-ko katedralera eraman zuen, apaiz eta organo-jole lanak egin zitzaizkan. Musikari eta aholkulari argitzaile goretzi zuten han. Tornquist-eko Sta. Rosa parrokian erretore jarri zuen 1942an. Jasanak jasanik, bihotza oso ahuldua zeukan arren, ez zen atsedenen altxoan lokartua geratu. Ekintzaile aspergaitza izaki, Katoliko Ekintza taldea sortu eta batzarareto eder bat eraiki zuen, hitzaldi eta ekitaldi artistikoak, musikazkoak bereziki, eroso eman ahal izateko. Halakoxea baitzen.

Tornquist-eko Sta. Rosa eliza. Parrokia honen ardura izan zuen Pelik, azken urteetan

Bihotzak atsedean hartu zion

Urteak zeramatzan bihotz osasunez urri; eta, azken hilabeteetan larritu egin zitzaion gaitza. Gaztea izanagatik, asko emana zuen bihotzak atsedean hartu zion, 1946ko abuztuaren 6an.



Asko emana zuen bihotzak atsedean hartu zion

Aipagarria da, benetan, hil zenean, Tornquist herriko agintaritzak aldarrikatu zuen *Ohore Dekretua*. Maite izan zuten han, maite baitzitu-
tuen Pelik ere hangoak.

Olerkaria zen. Hirurogeita bat olerki apain eta lau bertso paper aurkitu dizkiogu; dozenerdi bat ez besteak, argitara eman gabeak. Zilegi bekit, beraz, maite hatsa darien bizi-zertzelada hauek Peliren adiskide Txomin Jakakortajare-
nak, *Markiegi' ren oroimenez*, egin zuen olerkia-
ren ahapaldi hauez burutzea:

Gure biotzak negar zotinka
Ain intzan maite-maitea
Neke bait-tzaiguk ain lagun ona
Emen betiko galtzea.
Anitx geniken itxaro igandik
Ain intzan eta gaztea
Yaunak eskein dik emen ez uken
Zorionaren asea.

Guztiok yakin i izan aizela
Gogor uñak yo aun aitza
Erauntsi beltzak baso barnean
Iñarrosi aun artalatza.
Zalantzik gabe yasan bait-duk ik
Berdinik ez dun ekaitza
Euzkadik noizpait ospaturen dik
Iru anaien garaitza.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Markiegi familiari
- Bidegileak bildumari
- Wili Berasaluzeri
- Tere Gantxegiri
- Pelix Bergarari
- Mikel Egañari
- Debako Udal Liburutegiari

Liburu erabilienak

- AZURMENDI, Joxe: *Arana Goiren pentsamentu politikoa*, Donostia, 1979.
- ONAINDIA, Santi: *Milla euskal olerki eder*, Zornotza, 1954.
- *Oleri bilduma*. Zornotza, 1959-.
- URKIZU, Patri: *Euskal antzerkia*. Eusko Jaurlaritzza-Kultura Saila, Gasteiz, 1984.
- LABAIEN, Antonio María: *Teatro euskaro*, Auñamendi, Donostia, 1964.
- MARKIEGI, Joseba: «Itzaurrea» in LIZARDI, Xabier: *Itz-lauz*, Euskaltzaleak, Donostia, 1934.
- LIZARDI, Xabier: *Umezurtz olerkiak*. Euskaltzaleak, Donostia, 1934.
- IZTUETA, Paulo: *Orixe gaitzetsia*, Utriusque Vasconiae-2003.
- IZAGIRRE, Koldo eta taldea: *Telesforo Monzon*, Jaizkibel, Zarautz, 1986.
- *1936, Guerra Civil en Euskal Herria*. Iñaki Egaña (director). Aralar Liburuak, Andoain, 1999-2000.
- *Euzko deya* aldizkaria. Eusko Kultur Etxea, Buenos Aires, 1946.
- *Deba* aldizkaria. Debako Ostolaza Kultur Elkarte, Deba.
- *Euskerazaintza* aldizkaria. Bilbo-Donostia, 1987.
- *Diccionario Enciclopédico Vasco Auñamendi*. Ed. Auñamendi, 1969.
- *Harluxet hiztegi entziklopedikoa*. Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia, 1995.
- MARKIEGI, Peli: *Latsurregitarrak*, Debako Udala - Hiria, Donostia, 2005.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga
Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua: 3.000
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.
Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN: 84-457-2365-0 (Lan osoarena)
84-457-2366-9
L.G.: BI - 2871-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística